



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Olaeta Ballets Elkarteak bi dantza-pieza interpretatuko ditu larunbatean Arriaga Antzokian

- Taldeak *Suare* izeneko ballet-ekoizpen berria interpretatuko du, izaki bizidunek habitatarekin duten harremanaren inguruko gogoeta luzatzen duena; horrez gain, *Ama Lurra* lana dantzatuko du, folkloreaken bidez Euskal Herrian zehar egindako ibilbide bat.

Bilbo, 2021eko azaroaren 10a. Olaeta Ballets Elkarteak bi piezaz osatutako dantza-programa eskainiko du larunbatean, azaroaren 13an, 19:00etan. Hasiera batean, emanaldia 2020ko abendurako aurreikusita zegoen, baina garai hartan pandemia zela eta mugikortasun-murriztapenak ezarri zirenez, taldea ezin izan zen elkartu entseatzeko eta, beraz, ikuskizuna bertan behera utzi behar izan zen. Zorionez, taldeak proiektua bizirik mantendu zuen eta, orain, iritsi da Arriaga Antzokiko oholetara eramateko unea.

Azkenik, larunbat honetan izango du Olaeta Ballet Elkarteak aukera ***Suare*** aurkezteko, bere ballet-ekoizpen berria dena. Lan horren bidez, gogoeta egin nahi dute izaki bizidunek habitatarekin duten harremanaren inguruan. Mendia, basoa... bakoitzaren bizi-baldintzak eta ingurumena abiapuntutzat hartu eta elkarri nola eragiten dioten ikusi nahi dute, giza ekintzaren eta gure habitat naturalaren arteko orekari eustea lortzeko, gure habitata zaintzeko. Zaintza horretan emakumeek zeregin garrantzitsua dute, eta hori azpimarratu nahi dute.

Gainera, taldearen tradizioari eta funtsari helduz, ***Ama lurra*** lana eszenaratuko dute Olaeta Balletsekoek. Folkloreaken bidez Euskal Herrian zehar egindako ibilbidea da, balleteko pausoz pauso. Gainera, omenaldi xumea egingo diote Kepa Junkerari, eta horretarako haren musika-errepertorio zabaletik hiru lan eskainiko dituzte, adierazgarriak direlakoan.

Dantza baino gehiago

Balleteko dantzariekin batera, ikuskizuna osatzeko ezinbestekoak dira Zirzira Ahots Taldea emakumeen abesbatza, lus Pérezen zuzendaritzapean; Bilbao Sinfonietta orkestra, Iker Sanchez Silva zuzendari dela; Josu Cámara, eta, nola ez, musikaren egile diren euskal konpositoreak. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Xabi Kaltzadaren lana, *Suare* orkestrarako eta abesbatzarako moldatu baitu.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 12 eta 25 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus